



# GOZATU ZURE DENBORAZ GAITASUN DIGITALEN BIDEZ

Erabiltzailearen gida

---



# 1. Aurkezpena

**Herritarrentzako Gaitasun Digitalen Europako Esparrua (DigComp)** gaur egungo gizartean herritarrek izan behar dituzten gaitasun digitalak azaltzen ditu. Horretarako, **funtsezko 5 arlo eta 21 gaitasun digital** ezartzen ditu; arlo eta gaitasun horietan, Internet, IKTak eta beste teknologia batzuk erabiltzeko behar diren ezagutza, gaitasun eta jarrera guztiak azaltzen dira. DigComp-ek gaitasun digitaleko 8 maila ezartzen ditu, **4 mailatan** sailkatuta, oinarrizkotik hasi eta espezializatura.

DigComp esparruak ezarritako gaitasun horiek funtsezkoak dira guztiok **gizarte digitalean aktiboki parte hartzeko** eta teknologia ematen dizkigun **aukerak ahalik eta gehien aprobeitzatzeko** behar diren gaitasun digitalak dauzkagula ziurtatzeko.

Ikastaro honetan, **teknologiak erabiltzen eta gaitasun digitalak garatzen hasiko gara**. Haren bidez, gaitasun horiek hartzeko oinarrizko edukiak aurkeztuko ditugu; horrela, gero eta digitalagoa eta teknologikoagoa den mundu honetan moldatzeko behar diren gaitasunak eta ezagutzak garatuko ditugu, eta teknologiaren erabiltzaile kritiko eta arduratsu bihurtzeko prest egongo gara.



## 2. Formakuntza-ekintzaren ezaugarriak

***Gozatu zure denboraz gaitasun digitalen bidez*** ikastaroa **aurrez aurrekoa** da, eta saiotan gauzatuko da, honela banatuta:


Saio-kopurua	Iraupena	Edukia
1. Saioa	2 h	<ul style="list-style-type: none"><li>Ikastaroaren aurkezpena</li><li>Formakuntza-plataformarako sarbidea</li><li>Eduki teoriko-praktikoaren aurkezpena</li></ul>
2. Saioa	2 h	Eduki teoriko-praktikoaren aurkezpena
3. Saioa	2 h	Eduki teoriko-praktikoaren aurkezpena
4. Saioa	2 h	Eduki teoriko-praktikoaren aurkezpena
5. Saioa	2 h	<ul style="list-style-type: none"><li>Eduki teoriko-praktikoaren aurkezpena</li><li>Autoebaluazio-galdetegia egitea</li><li>Gogobetetze-galdetegia betetzea</li><li>Gomendioen eta ikasteko ingurunearen aurkezpena</li></ul>



## Ikastaroaren egitura

Ikastaroan, **formakuntza-plataformako** formakuntza-materiala kontsultatuko da.

Plataforman, **bloke** hauek daude:



## Edukiaren sekuentziak



### Helburuak:

- Edozein informazio bilatzea bilatzaileen bidez.
- *Online* komunikazio-tresnak ezagutzea, bai sinkronoak bai asinkronoak.
- Modu eraginkorren komunikatzea posta elektronikoen bidez.
- Modu eraginkorren komunikatzea bideoen bidez.
- Edukia argitaratzea sare sozialetan.
- Netiketa arauak ezagutzea sareko gune ezberdinetan.
- *Online* kudeaketak burutzea, hala nola hitzordu mediko bat eskatzea edo administrazio-izapideak egitea.
- *Online* lankidetzaren tresna ezberdinak ezagutzea.
- Edukiak formatu ezberdinetan sortzeko egokiak diren tresnak identifikatzea.
- Diseinu bat sortzea multimedia tresnak erabiliz, hala nola Canva.
- Teknologia digitalak erabiltzean mehatxu eta arrisku ohikoenak identifikatzea.
- Geure burua eta besteak babestea teknologia digitalak erabiltzean.
- Ekipamendu eta gailu teknologikoen oinarrizko mantentze tekniko bat burutzea.



### Edukien aurkibidea:

1. Mugatu sareko bilaketak
2. Antolatu *online*-komunikazioak
3. Atera etekina Interneti eta sare sozialei
4. Ikasi nola jokatu
5. Aritu elkarlanean eta partekatu ezagutza!
6. Sortu eta editatu multimedia edukia
7. Saihestu sareko arriskuak
8. Zaindu gailua
9. Jarraitu ikasten




## Edukian barrenako nabigazioa

Edukien gunetik ikastaroaren edukian sartu ondoren, modu sekuentziatuan nabigatu ahal izango duzu edukian barrena, edo libreki aurkibidetik:



Edozein pantailatatik irits zaitezke edukien aurkibidera, eta dauden elementuekin interakzioan aritzeko argibideak emango dira..





## Eredu pedagogikoa

Edukiak aurkezteko, **kasutan oinarritutako ikaskuntza-eredu esanguratsu** bati jarraitzen zaio. Eredu horrek erabiltzaile-profil desberdinen esperientziak hartzen ditu kontuan. Horretarako, helburutan oinarritutako egoerak aurkezten dira, eta egoera horiek ikastaroaren ildo nagusi gisa erabiltzen dira. Egoera horietan, benetako gertaerak simulatzen dira, eta pertsonak zeregin jakin bat hartzen dute gertaera horiek konpontzeko eta garatzeko.

## Ikasteko estiloak

Edukia diseinatzean, **ikasteko estilo desberdinak** hartu dira kontuan. Hala, eredu eskematiko bisual bati jarraikiz aurkezten da informazioa. Eredu horretan, begi-kolpe batez erakusten dira funtsezko alderdiak, baliabide grafikoen bidez, eta, gero, hasierako informazioa garatzen da. Mota askotako **baliabideak** txertatu dira (testua, irudia, bideoa, interaktiboak...), guztiak oso erabilgarriak; esaterako, testuinguruan kokatutako adibideak, aholku praktikoak, gehiago ikasteko baliabideak eta jarduerak.

## Formakuntzaren jarraipena

Ikastaroa amaitutakoan, **gogobetetze-galdetegi bat eta gaitasun digitalen autodiagnostiko-testa** daude; azken horrek zure maila esango dizu.

Gainera, **ikastaro, baliabide eta tresnen zerrenda** bat duzu; zerrenda horri esker, zure ikasteko eremu pertsonala eraiki ahal izango duzu, eta KZguneko formakuntza-ibilbidearekin jarraitzeko gomendioak aplikatu.





## Ebaluazioa

Formakuntza behar bezala aprobetxatzeko, **aurrez aurreko 4 saiotara joan** behar duzu gutxienez, **eduki interaktiboa ikusi**, eta **amaierako autoebaluazio-galdetegia egin**.

Galdetegi horrek 10 galdera ditu, mota askotakoak (erlazionatu, hautatu, etab.), eta gaitasun digitalen eremu guztiak eta ikastaroan ikusitako eduki guztia hartzen dute barnean. Formakuntza-plataforman egingo da, azken saioan, eta 5 saiakera izango dituzu. Gainditzeko, erantzunen % 50 zuzenak izan behar dira.

Baldintza hauek bete behar dira:

**Aurrez aurreko saioetara joatea:** Programatutako orduen % 75 (alegia, 10 orduetatik 7,5)

**Formakuntza-plataforma:** Azken notaren % 50

Edukia ikustea: % 20

Ebaluazio-galdetegia egitea: % 80



Ikastaroa amaitzean, eta baldintzak betez gero, **aprobetxamendu-ziurtagiria** lortuko duzu.

Nahitaez bete beharreko irizpideez gain, azken kalifikazioan kontuan hartzen ez den arren, hezitzaileek kontuan izango dute diseinatu eta sekuentziatu diren **jarduerak** egin eta haietan parte hartu den ala ez, proposatutako ikaskuntza-helburuak errazago bereganatzen laguntzen baitute.

Jarduera horiek edukia garatzean aurkezten dira, eta edukiari lotuta, eta era askotakoak dira:

**Jarduerak:** eduki interaktiboan sartuta daude, eta ekintzaren bidez ikasteko dira; jarduera horiek automatikoki zuzen daitezke, eta *feedback-a* ematen dute.

**Elkarlaneko jarduerak:** elkarlanaren bidez elkarrekin ikasteko diseinatutako jarduerak.

**Bideratutako jarduerak:** eduki interaktiboan sartuta daude, eta erantzun irekikoak dira; ikasgelan egingo dira, ikasitakoa praktikan jartzeko.





## Nire kalifikazioak

Ikastaroan zer aurrerapen egin duzun eta zer kalifikazio lortu dituzun jakiteko, sakatu alboko menuko **Kalifikazioak** aukera; hor, orduraino egin duzun aurrerapena ikusiko duzu eta, ikastaroa amaitzean, amaierako kalifikazioa..

The screenshot shows a user interface with a dark sidebar on the left containing navigation items: Partaideak, Kalifikazioak, Hasiera, Aginte-panela, Egutegia, and Nire ikastaro aktiboak. The main content area has a breadcrumb trail: Hasiera > Ikastaroak > Aurrez-aurreko ikastaroak > Laguntza-ikastaroak > Gozatu zure denboraz gaitasun digitalen bidez > Kalifikazioak > Kalifikazioen kudeaketa > Erabiltzaile-txostena. The main heading is 'Gozatu zure denboraz gaitasun digitalen bidez: Ikusi: Erabiltzaile-txostena'. Below this is a sub-heading 'Erabiltzaile-txostena - Test Personas usuario' and a dropdown menu showing 'Erabiltzaile-txostena'. A table displays qualification elements with columns for 'Kalifikazio-elementua', 'Kalkulatutako pisua', 'Kalifikazioa', 'Ibiltartea', 'Ehunekoak', 'Feedbacka', and 'Ikastaroaren denerako ekarpena'. The table lists three items: 'Azken autoebaluazio-galdetegia', 'Gozatu zure denboraz gaitasun digitalen bidez', and 'Ikastaroan guztira' (overall average).

Kalifikazio-elementua	Kalkulatutako pisua	Kalifikazioa	Ibiltartea	Ehunekoak	Feedbacka	Ikastaroaren denerako ekarpena
Azken autoebaluazio-galdetegia	-	-	0-10	-	-	-
Gozatu zure denboraz gaitasun digitalen bidez	-	-	0-60	-	-	-
<b>Ikastaroan guztira</b> Kalifikazioen batez besteko ponderatua. Sartu hutsik dauden kalifikazioak.	-	-	0-100	-	-	-



### 3. Ikastaroa garatzeko orientabideak

Formakuntza-ekintza behar bezala garatzeko eta aprobetxatzeko, hartu kontuan **gomendio** hauek:



Oraindik egin ez baduzu, egin gaitasun digitalen autodiagnostiko-testa, abiapuntua zein den jakiteko.



Begiratu formakuntza-plataforman dagoen **ikastaroko edukia** saio bakoitzaren aurretik edo ondoren, dena ondo ulertzen duzula ziurtatzeko eta zalantzak galdetzeko, nola ikasgelan hala foroaren bidez.



Hartu parte **elkarlaneko jardueretan** eta egin **bideratutako jarduerak**; horrela, hartutako ezagutzak finkatuko dituzu.



Nahitaez egin behar da **autoebaluazio-galdetegia**; irakurri arretaz galderak, eta begiratu ondo erantzutean; nahikoa denbora duzu. Gainera, aukera bat baino gehiago dituzu galdetegia egiteko.



Gogoratu **gogobetetze-galdetegia** bete behar duzula eta, nahi izanez gero, autodiagnostiko-testa berriro egin, gaitasun digitalak eskuratzen aurreratu duzun jakiteko.



Ikusi zuretzat dauzkagun **gomendioak** eta egin aurrera **KZguneko** formakuntza-ibilbidean.

## 4. Erabiltzailearentzako arreta



Hezitzaileak aurrez aurreko saioetan sortzen diren zalantza guztiei erantzungo die.



Foro birtualaren bidez galdetutako zalantzei aurrez aurreko saioetan erantzungo zaie.



Ikastaroen funtzionamenduari eta garapenari buruzko beste zalantzaren bat izanez gero, ikusi [Ohiko galderak](#) edo galdetu zure KZgunea zentroan.



Esteka honetan dituzu KZgunea zentroarekin harremanetan jartzeko informazioa eta haren arreta-ordutegia:

[Zentrozen bilatzailea](#)

## 5. Baldintzak

---



Gailu mugikor bat izatea, ahal dela Android.

Gomendagarria da gailuan memoria edukitzea ikastaroaren jarraipen egokia egiteko.



## 6. Ohiko galderak

---



### Zer da KZgunearen formakuntza-plataforma?

KZgunearen [Formakuntza-plataforma](#) Interneteko gune bat da, gure formakuntza-eskaintzaren edukiak jasotzen dituena. Gure urruneko formakuntzaren edukiak eskuratu nahi badituzu edo gure hezitzaileek gidaturiko ariketa praktikoak egin nahi badituzu, bilatu gehien interesatzen zaizun [ikastaroa](#) gure webgunean, eta eman izena.

### Non deskarga ditzaket KZgunean egindako ikastaro edo hitzaldien aprobetxamendu-ziurtagiriak?

Zure kontuan eskuratu ahal izango dituzu KZguneko ikastaroen bertaratze-ziurtagiriak, ikastaro edo hitzaldi horiek bukatutakoan. KZguneko zure kontura sartu, eta, [Nire ikastaroak](#), atalean, aurki ezazu egin duzun ikastaroa eta klikatu “**Deskargatu ziurtagiria**” botoia.

### Zentro batera joan nahi dut. Zer ordutegi du?

Hautaturiko zentroaren ordutegiak kontsulta ditzakezu gure webguneko [zentroen bilatzailea](#) erabilia.

### Nola eska dezaket hitzordua KZgunearen zentroetan?

Webgunearen bidez edo aukeratu duzun KZgunea zentrori deituta eska dezakezu informazio eta aholkularitza teknologikoko kontsulta-zerbitzuetarako hitzordua.

Ez da hitzordua eskatu behar KZgunea zentroetara nabigatzera joateko.

Beste zalantzarik baduzu, irakurri KZgunearen

[Ohiko galderen orria](#).





# Ongi etorri ikastarora!



Financiado por  
la Unión Europea  
NextGenerationEU



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE ASUNTOS ECONÓMICOS  
Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL



Plan de Recuperación,  
Transformación  
y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO